

## Hemen da udaberriko bonoen kanpaina!

### 125.000 euroko balioa duten 2500 bono jarriko dira salgai herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea suspertzeko

- 50 euroko bonuak maiatzaren 27tik 31ra bitartean erosi ahal izango dira, 30 euroren truke, SALKINen lokalean. Bonuak erosteko beharrezkoak diren tiketak, maiatzaren 23tik 24ra, banatuko dira Salkinen.
- Atxikitako establezimenduetan bonuak erabiltzeko epea maiatzaren 27tik ekainaren 30era bitartekoa izango da.

**Andoainen, 24-05-17.-** Andoaingo Udalak, Salkin Merkataria eta ostalarien elkartearekin elkarlanean, 2500 bonu jarriko ditu andoaindarren eskura, tokiko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuen sektorean kontsumo kontzientea sustatzeko. Andoaingo bizitzarako ezinbesteko osagaiak dira herriko denda, komertzio eta tabernak, eta horregatik, Andoaingo alkate Andoni Alvarezek adierazi du “premiazkoa dugula sektorea zaindu, babestu eta horrelako ekimenak gauzatzea”. Izan ere, sektorea indartsu egonda, “herriko ekonomia ere gihartsu egotea” ahalbidetzen da, “Andoain herri gisa garatzeko bidea irekitzeaz gain, udalerriko familiei tokiko establezimenduetan produktuak erosten laguntzea ahalbidetzen” duelako. Gainera, “tokian tokikoa jateak edo kontsumitzeak, gure herriko merkataria eta saltokiei onura egiteaz gain, gure inguruneari ere egite dio mesede. Herriko komertzio eta ostalaritzan erosita, guztiok ateratzen gara irabazle”, borobildu du.

Bonuek 50 euroko balioa izango dute eta 30 euroko prezioan salduko dira. Bonu bakoitza 10 euroko 5 kupoitan banatuko da, eta kanpainari atxikitako establezimenduetan erabili ahal izango dira. Establezimendu horiek behar bezala identifikatzeko, berariazko kartela izateaz gain, atxikitako establezimenduen zerrenda osoa emango da bonuak ematearekin batera. Aldi berean, establezimenduen zerrenda hori salkinen webgunean egongo da ikusgai: [www.salkin.eus](http://www.salkin.eus)

#### Nola eskuratu bonuak

Bonuak maiatzaren 27tik 31ra erosi ahal izango dira SALKINen lokalean (Agustin Leitza kalea, 11) izakinak agortu arte. Ilarak saihesteko eta erosketa errazteko, maiatzaren 23 eta 24an (edo agortu arte), tiketa zenbakitu bat eskainiko da, gero bonuagatik trukatu eta erosi ahal izateko.

Andoaingo *adin nagusiko guztiek* erosi ahal izango dute bonua. Horretarako, NANA aurkeztu beharko dute (gehienez, bonu bat salduko da NAN bakoitzeko, eta gehienez bi NAN onartuko dira pertsona bakoitzeko). SALKINen arreta ordutegia goizez (10:00etatik 14:00etara) eta arratsaldez (16:30etik 20:00etara) izango da. Kreditu-txartelarekin ordaindu beharko da erosketa, eta ez da eskudirurik onartuko.

Beraz, Andoaingo Udalak eta Salkinek kanpaina honetan parte hartzera animatu dituzte andoaindarrak, bertako merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan kontsumoa sustatzeko, tokiko ekonomia dinamizatzen, okupazioari eusten eta udalerriko familiei tokiko establezimenduetan produktuak erosten laguntzeko.